

## ***Sierra de Rozas maiatxak 25 larunbata***



Kantabria eta Euskadi arteko muga naturala ditugu bailara glaziar hauek, Ramaleseko bailarak eta Karrantxako bailarak hain zuzen. Altura ertaineko mendilerro hau turismorako oso zonalde erakargarria da, arrokoz eta larrez jantzita bait dago ingurune osoa.

Kantabria kanpoko mendizale gutxi hurbiltzen dira zonalde honetara eta hau oso erakargarria bihurtzen duen ezaugarria dugu. Egun osoan zehar oso ibiltari gutxiekin topatzea posiblea bait da. Gainera transportea ere alde dugu, trabesia izanda bi kotxerekin joan beharko ginateke bestela .

Jaurdunaldiko desnibel positiboa 950 metrotakoa eta 870 desnibel negatibokoa izango da, eta 12,8 kilometrotakoa gutxi gora behera.

**Irteera ordua:** 7:00etan Estadioko atetik. Itzulera 20:00etan Gasteizen.

**Zailtasuna:** Hautza mendiaren zailtasun nagusiak igoerako maldetan datza. Hirurehun metrotarik mila iruheun metrotara igota kilometro gutxitan. Gure kasuan teknikoki erreza den igoerari egingo dugu.

**Ibilbidea:** Ramales de la Victoriatik Rianchora trabesian egingo dugu. Ramalesetik irtenda, hegoaldera doan pista bat hartuko dugu eta Covalanas kobazulo ingurura gerturatuko gara. Bertan gaudela, erre kara jeitsi eta malda behetik zeharkatzen duen bidea jarraituko dugu. La Pared auzora eramango gaituen bidea jarraituko dugu denbora guztian eta bertatik gora egingo dugu gutxinakara gainean ditugun mendien norabidean. Behean La Rosa iturria eta erre karearen inguru guztia uzten joango gara apurka apurka.

Astiro ibili beharko garen zonalde karstiko bat gurutzatu eta gero, azkenengo maldeei aurre egingo diegu Peña del Moro gailurrera heltzeko. Bertan ikuspegieta z gozatu eta gero jeisten hasiko gara beste bailara batetik Rianchorantz, non autobusa izango dugu gure zain.

**Lurzorua:** Mixtoa arroka eta belarra, zonalde kárstikoa izanik arrokako, basoetako eta larre inguruneak topatuko ditugu. Nahiz eta, gure ibilbidea teknikoki erraza izango den.

**Erritmoa eta ordutegiak:** Denok lasai eta gustora joateko erritmo bat eramango da, hau da, taldera moldatutakoa, ez ditugu markak hautsiko. Ibilbidean zehar hainbat geldione egingo dira. Egunean zehar ez dira oso luzeak izango ez ozteko, eta luzeago bat bazkaltzeko.



#### Beharrezko materiala:

- Arropa beroa
- Uretako Txaketa
- Txanoa eta guanteak
- Eguzkirako betaurrekoak
- Bastoiak (jeitsietarako gomendagarriak)
- Eguzkitako krema
- Mendi edo trekking-eko botak "eginak" sola berriarekin.
- Eguna pasatzeko jana eta edaria.

#### Zuen gidak

**Iñaki Garay:** Goi mendiko gida eta eskarmentu handiko alpinista ere bada. Hamaika ekintza burutu ditu munduko hainbat mendilerroetan: Himalayan, Alpeetan, Kanadako roksetan, Norbegan, Andeetan, Pirineotan, etab luze bat. Urte batzuk daramatza formakuntza eta gida lanak burutzen Estadio Fundazioarekin ere.

**Unai García:** Eskarmentu handiko alpinista, Pirineotan, Himalayan, Alpeetan eta Atlasean ibilitakoa, mendi-ertaineko gida eta irakasle moduan orientazio, autoreskate, lan bertikaletan eta ekintza gidatuetan izaten da lanean. 2013tik geroztik Estadioan ere gida lanetan dihardu Pirineotan eta Euskal mendietatik.